

dituela : bai *j*-gaztelarena, bai *i* laziotarena, bai *y* grekotarena. Berari deritza, *j*-ta idatzi litekela; bañan aŕen da aŕen, euskaldun guziaz otoitz egin bear zayela, *i*-ren otsaz befi esateko.

Beste aburu kat dakar Altube-k, esanik, itz-auŕez *j* idatzi bear dala ta euskaldun bakoitzak bere eŕiko aboskeraz esan.

Eguskitza jaunak diyo, Altube-k eta Azkue-k autuan jaŕaitu dezatela, arlo auxe ongi aztertu arte : edo autua oŕela zatitu : 1º itz-auŕetan *j* idatzi bear al da? 2º Nolako abozkeraz oŕelako edo alako eŕitaldean esan diran aitortu bear al da? 3º *J*-idatzi-aŕen, euskaldunai otoitz egin bear al zaye, *i*-ren abozkeraz esateko?

Luze dijoalako, bigarko utzi da erabakiya.

II.—Eguskitza jaunak aditz-auŕetik dabiŕen *era* auŕezkiya dala diyo ta ez artezki *ra*, batzuek esaten dutenez. Urkijo jaunak erantzun diyo ta ez da erabakirik artu.

III.—Lakonbe jaunak, urtearo, asteko egun ta ile-n izen banaroak ekaŕi dizkigu.

IV.—Altube-k esan digu, bera ezin izan litekela *Euskera*-ko Zuzendari, Bilbo'n bizi ezin dalako.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldiya.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzako gela nagusian, 1928'ko Epaiŕa'ren 30'an.

Auŕeko batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzañak datoz.

I.—Azkue jaunak ekaŕi digu lan bat : Irun-Ondaŕabi ta Oyartzun-go aditza.

II.—Atzoko *j*-taren autua beritu da; erabaki bat artzeko asmotan. Kanpion ta Olabide jaunak diyote izkiyen abozkeran, nola esan ala idatzi bear litzakela, *j*-ta auxe non nai egon-aren. Beaz, *j* esan ezkerero, *j* idatzi : *i* esan-da, *i* idatzi ta berdin *y* azaldu ezkerero.

Altube-k bere aburua eutsi dakar : Azkue-k ere bai ta autarkitara jo bear dala-ta, Altube jaunaren aburua autagari jafi da : Itz aurre guzitan *j*-ta ipiñiko da, naiz efi batzuetan beste abozkeraz esan :

Autarkiyak onela datoz : 6'ik bayetz : 2'ik ezetz ta bi utsetan.

III.—Esku-iztegiya egiten ari dira batzordeko jaunak, Ormaetxea Nikolas jauna lagun dutela. Itz-berri asko (neologismo) sortu dituzte, bañan abek ¿lengo itz-arteana, beren leñoan, joan bear al dute, edo iztegiyaren ondoren, toki berezi batean? Auxe luzaroan autuan erabili da, bañan azkenez, autagari izan dedin, Urkijo jaunak auxe azaldu digu :

¿Iztegi berri ori *neologismoak* bañenen dituela azalduko al da, edo iztegi-lekora, toki bereziyan?

Neologismoak iztegiyaren atzetik, toki bereziyan dituela 6-k esan dute : bañenen dituela 4-k.

V.—Ormaetxea jaunak iztegi-jardunean, oraiñ arteraño egin duen lana euskaltzain jaunai azalduko diye, urango batzaralditan.

VI.—Urango batzaratarako Lakonbe jaunak, *Euskal-zenbakitzarako* datozen lanen azterpen labur bat ekañiko digu.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.
